

berriobeiti

Aitzoain // Añezkar // Artika // Ballariain // Berriobeiti // Berriogoiti // Elkarte // Larrageta // Lotza // Oteitza

udalaren osoko bilkura <3-4> udal informazioa <4-6> **kultura** <7-8> **hiritarren arreta** <9> **euskara** <9-10> **kirolak** <10>



Eguberriko ekitaldiak

HERRI BAKOITZEKO BIZTANLE-KOPURUA (2010KO AZAROAREN 30)



UDAL ZERBITZUAK

UDALA

Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti.
Harrera ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. 948 30 31 29. **Faxa:** 948 30 27 31. **Web:** www.berrioplano.es ayuntamiento@berrioplano.es

ALBIENTEEN ZERBITZUA

Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti.
 618 96 94 55

MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA
 Iturrubidea, 1. Artika. **Tel:** 948 38 32 54 **Faxa:** 948 38 32 77.

Posta elektronikoa:
 cultura@berrioplano.es

LIBURUTEGI PUBLIKOA

Maria de Maeztu Kultur etxean.
 Iturrubidea, 1. Artika. **Ordutegia:** 15:00etatik 21:00etara. **Tel:** 948 38 32 22. **Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es **Katalogoa kontsultatu:** www.navarra.es

UDAL IGERILEKUAK

Nuestra Señora de la Purificación, z/g. Berriobeiti
 948 30 38 52. Igerileku estalia eta udako igerilekua

ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA

Ntra. Sra. de la Purificación, 11. Berriobeiti. Jendearendako zabalik: 8:00etatik 22:00etara.

KONSUMITZAILEAREN INFORMAZIOERAKO UDAL BULEGOA

Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti. 948 30 31 29 **Faxa:** 948 30 27 31 **Harrera ordutegia:** hilabeteko azken asteartean, 10:00etatik 13:00etara. Iritsi ahala egiten da harrera. Telefono bidezko harrera ere bai

BERRIOGOTIKO HAUR ESKOLA

Nuestra Señora de la Purificación, 13. Berriogoiiti. **Telefonoa:** 948 35 15 88

ARTIKAKO HAUR ESKOLA

Leonor Akitaniakoa, 8. Artika.
Telefonoa: 948 21 56 31

UDALA

UDAL BULEGOAK

Jendearendako harrera ordutegia: 9:00etatik 14:00etara

UDAL TEKNIKARIAK

Bisitak: astelehen eta ostegunetan, 9:00etatik 14:00etara
Deiak: astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan, 12:00etatik 15:00etara

IDAZKARITZA

Bisitak: astelehen, asteazken eta ostegunetan, 9:00etatik 14:00etara.
Tasak: agiriak egitea eta izapidetzea. **Ziurtagiriak:** 0,70 €. **012-ren bidez eskatzen diren ziurtagiriak:** doan. **Txosten teknikoaren ziurtagiriak:** 9,02 €. **Konpultsatzea:** 0,20 €. **Fotokopiak:** DIN A-3, 0,15 €. DIN A-4, 0,06 €

ESKUALDEKO HIRI GARRAIOA

901 50 25 03
22-B linea 22-Luzapena Berriogoiitira (astelehenetik ostiralera)
Ibilbidea

Yanguas y Miranda, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Gipuzkoako etorbidea Berriozarren, Gipuzkoako etorbidea Aitzoainen, Plazaola industrialdea, Santa Ageda Aitzoainen, Andrelopa Aitzoainen eta Berriogoiiti.

Maiztasuna

60 minuturo.

16. Linea- Luzapena Berriogoiitira (asteburuetan)

Maiztasuna

20-24 minutu.

Ibilbidea

Beriain, Noain, Talluntxe industrialdea, Cordovilla, Zaragozako etorbidea, Yanguas y Miranda, Sarasate

pasealekua, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Gipuzkoako etorbidea (Berriozar), Gipuzkoako etorbidea (Aitzoain), Plazaola industrialdea, Santa Ageda Aitzoainen, Andrelopa (Berriobeiti) eta Berriogoiiti.

14. Linea-Luzapena Artikara (eguneko zerbitzua)

Maiztasuna: Lan egunetan, 55 minuturo. Larunbatetan, 60 minuturo.

Igande eta jaiegunetan, 60 minuturo
Ibilbidea: Iruñeko Udala, Arrotxapea eta Luzapena Artikara (Alde Zaharra)

N4 Linea (gaueko zerbitzua)

Maiztasuna: Aitzoaingo mugaraino: 60 minuturo. Berriogoiitiraino:

hainbat bidaia (zehazteke)
Ibilbidea: Iruñea (Sarasate pasealekua), Berriogoiiti. Berriobeitiko udaletxean, geltokiak kuartelaren aurrean, Ultzamako errepidearen bidegurutzean, Aitzoainen, Berriobeitin eta Berriogoiitin.

17. Linea

Maiztasuna: Lan egunetan: 20 minuturo. Larunbata eta jaiegunetan: 40 minuturo.

Ibilbidea: Mutiloabeiti (lau geltoki), Mutiloagoiti (4 geltoki), Sadar, Agoitz, Paulino Caballero, Nafarroa Behereko etorbidea, Vianako Printzearen plaza, Yanguas y Miranda, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Sáenz de Oiza, Santa Engrazia, María Viscarret eta Artika Berri.

TAXIAK

Teletaxia (948 351335)

ANTSOAINEN MANKOMUNATUAK DAUDEN ZERBITZUAK

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Udaletxeko plaza, 1. Antsoain.
 948 132207

EZKABA ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA

Mendikale, 1. Antsoain 948 14 82 48

BERRIOZARREKIN MANKOMUNATUAK DAUDEN ZERBITZUAK

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Berriozarko etorbidea, 10. Berriozar
 948 30 00 07. **Ordutegia:** 9:00etatik 13:00etara, aurrez hitzordua eskatuta

OSASUN ETXEA

Kaleberri, z/g
Telefonoagunea: 948 30 94 66
Aldez aurreko hitzordua: 948 30 94 04

FAMILIA PLANIFIKAZIOERAKO ZENTROA

948 30 19 07

MENDIALDEA ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Berriozarko etorbidea, z/g 948 309469

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Berriozarko etorbidea, z/g 948 30 94 05

"FRANCISCO CASANOVA" MUSIKA ESKOLA

Oianondoa, 1. Berriozar
 948 30 04 30 / 948 30 18 00

BAKE-EPAITEGIA ETA ERREGISTRO ZIBILA

Rekalde, 8. Berriozar
 948 30 08 79 **Harrera ordutegia:** 9:00etatik 13:00etara

KONTZEJUAK

KONTZEJU ADMINISTRATZAILEA:

José Vidal. **Harrera ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara (948 303129)

AITZOAIN:

Oronsuspe auzoa, 3.
Kontzejuburua: Teresa Sanz Arroyo

AÑEZKAR:

San Andres k/ 6
Kontzejuburua: Joaquín Lumbier Irisarri

ARTIKA: San Martzial, 9 (948 38 37 93) **Kontzejuburua:** Alberto Pérez Gil. Administratzailea: Imanol García

BALLARIAIN: San Pedro k/ z/g
Kontzejuburua: José Antonio Gómez Chandía

BERRIOGOITI: Santa Eulalia k/ 47
Kontzejuburua: Francisco Esquíroz Subiza

BERRIOBEITI: Kale Nagusia, 2
Kontzejuburua: Francisco Javier Díaz Rodríguez

ELKARTE: Purificación k/ 16
Kontzejuburua: José Ángel Huarte

LARRAGETA: San Esteban k/ z/g
Kontzejuburua: Amelia Peñalver Hermida

LOTZA: San Joan k/ z/g
Kontzejuburua: José Ángel Nuin

OTEITZA: San Joan k/ 6

Kontzejuburua: María Macías Rodríguez

PILOTALEKUAK: TASAK

BERRIOBEITI Gomazko pala, larruzko pala, frontenisa, futbitoa eta saskibaloia

(948 30 32 00) **Erroldatuak, kontzejuan jaiotakoak eta aukideekin ezkondatuak:** 10 euro/orduko **Erroldatu gabeak:** 16 euro/orduko **Argia:** 5 euro/orduko.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 22:00etara. Larunbatetan: 09:00etatik 12:00etara. Larunbat arratsaldeetan, igande eta jaiegunetan: soil-soilik auzokideendako

ARTIKA

Gomazko pala eta pilotalekua (630 23 86 85) **Kontzejuan bizi eta jaiotakoak alokairua:** 3 euro/orduko **Auzokideak auzokide ez direnekin:** 6 euro/orduko Bi ordu: 4 euro gehi argia. **Auzokideak ez direnak:** 12 euro/orduko Bi ordu: 20 euro gehi argia. **Argi fitxak:** 3 euro/orduko **Aukerazko dutxa:** 2,4 euro. **Ordutegia:** astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 22:00etara. Larunbatetan: 9:00etatik 21:00etara Igandeetan: itxita.



Berriobeitiko herrietako auzokideek badute antzinako argazkiak bidaltzeko aukera, atal honetan argitaratzeko; horretarako, Kultura Zerbitzuarekin jarri behar dute harremanetan. Behin argitara emanda, argazkiak auzokideei itzuliko zaizkie.

ATZERA BEGIRAKOAK. ZAMARGIN LARRAINEAN, EULTZI-LANETAN (AÑEZKAR) (1955). Irudian Faustino eta Ricardo Pérez de Zabalza ageri dira (atorra zuriz jantzita), lanean ari ziren eultzi-makinaren ondoan, 1955ean, Zamargin larrainean (Añezkar). Makina hura Ajuria 0 bat zen, eta 8 zaldi-potentziako Lister motorea zuen. Inguru hartan pasaeran zebilen pertsona batek ateratako argazkia da.

LOTZAKO AINTZIRAKO ESPEZIEAK, ALEZ ALE. ANTZARA HANKAGORRITZA. Antzara Nafarroan dagoen hegazti anaido arruntik handiena da. 70 eta 90 cm artekoa da eta, hegan, hego-luzera 147 eta 180 cm artekoa da. Hau da, metro eta erditik bi metrora bitartean, gutxi gorabehera. Oro har, grisaxka da, eta beheko aldeak argiagoak dira. Hankak gorri-tak dira, eta hatzen artean mintza bat dago, uretan hobeki mugitzeko. Mokoaren kolorea horizta deigarria da, eta arrak emeak baino handixeagoak izaten dira.

Hegan ari direla, migrazioan bereziki, "V" itxurako formazioetan antolatzen dira, taldeburuen ahalegina hobeki baliatzeko. Txirindularitza-lasterketetan bezalaxe, taldeburuak aldian behin txandakatzen dira.

Antzara Lotzako aintzirako espezierik adierazgarriena da. Iraganean, hegaztiak era kargarriena izaten zen ehiztarientzako. Gaur egun, ordea, ehiza hori ia erabat desagertua dago.

Migrazio garaia urtarilaren bukaeran hasten da, otsailean eta martxoan jotzen du goia, eta apirilera arte irauten du, baita maiatzera arte ere. Hain zuzen ere, hegaztiok garai horretan baliatzen dira gure aintzirez (Lotzakoaz, bereziki), atseden hartzeko, elikatzeko eta bidaiak dakarren nekamenetik indarbertitzeko. Antzarak ez dute negua Lotzako aintziran ematen, eta ehunen batek bakarrik pasatzen du negua Pitillaskoan, horixe baita negupasarako ohiko eremu bakarra Nafarroan.

Aintzirari buruzko argibideak nahi izanez gero, sar zaitzake zaleek eta aintziraren lagunek sortu duten blogan.
<http://balsadeloza.blogspot.com/>



HERRITARRENTZAKO TELEFONOA

Herritarrentzako Telefonoaren Harrera zerbitzuaren bidez, badago gestio hauek egiteko aukera:

- Ziurtagiriak eskatu (katastroa eta udal erroldak, bizitokia, bizikidetzak, ordainagirien kopiak, etab).
- Udal argibidea ematen du: zerbitzuak, kultur eta kirol agenda, espedienteak izapidetzea, ordenantzak, zergak, ikastaro eta beka eskaintzak, enplegu deialdiak eta lehiaketa publikoak.
- Udalekoak ez diren izapideei buruzko argibidea: oinarrizko hornidurez (telefonoa, gasa, elektrizitatea eta ura) arduratzen diren enpresak, Nafarroako Gobernu, osasun etxeak eta zerbitzuak, heziketa zerbitzuak, garraio zerbitzuak, aisia eta elkarteak.
- 012 telefonoaren bidez ere zerbitzuei

buruzko kexak aurkeztu daitezke, iradokizunak egin eta udalarekin zerikusia duten gaiiei buruzko abisua eman.

Nola sartu: Markatu 012 telefonoa. Udalerritik kanpo deitzen baduzu, telefonoa hauxe da: 948 217012
Orduetgia: asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 19:00etara, eta larunbatetan, 9:30etik 13:30era. Udan orduetegi berbera izanen da.

Deiaren kostea: finkotik: 0,34 euro. Sakelakotik, 0,36 euro, Telefonocaren tarifaren arabera eta denbora-mugarik gabe. Kontsultatu beste operadore batzuk.

> udalaren osoko bilkura Laburpena

OSOKO BILKURA ARRUNTA 2010eko urriaren 5a

EGITURAZKO ALDAKETA, BIZITOKI ERABILERARI LOTURIKO LURZATI PRIBATUEN ORDENANTZAREN INGURUAN.

Zinegotzi guztiek parte hartu zuten osoko bilkuran, Udalbatzak aldaketa bat onetsi zuen bizitoki-erabilerari loturiko lurzati pribatuak arautzeko ordenantzaren. 7 boto izan ziren alde (AAB, UPN eta CIB), eta 4 abstentzio (NaBai, CP-HK eta AVAB).

LOTZAKO BALTSAREN EGITASMOA.

Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen Lotzako Kontzejuak eskuordetutako eskumena, Lotzako Baltsa proiektuaren lanak gauzatzeko eta kudeatzeko eta, era berean, proiektua idatzita dagoen bezalaxe onesteko. Era berean, Udalbatzak onetsi egin zuen Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuari diru-laguntza eskatzea. Departamentuak, izan ere, laguntzak ematen ditu hainbat jarduerak egiteko: oihan-lanak, biodibertsitate-lanak eta paisaiari dagozkionak.

HITZARMENA HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREKIN, ARTIKAN ETXABE BAT DOAN UZTEKO.

Udalbatzak aho batez onetsi zuen Hezkuntza Departamentuarekiko hitzarmena, Artikako etxabe bat uzteko. Etxabea Iruñeko Donapea lkastrer Integratu Politeknikoak erabiliko du lanbide gaikuntzarako hastapen programa hau emateko: "Ibilgailuak konpontzeko laguntzailea".

M^a TERESA MARTÍNEZ VALLVEYK UKO EGIN DIO UDALEKO ZINEGOTZI IZATEARI.

Udalbatzak onartu egin zuen UPNko zinegotzi M^a Teresa Martínezen ukoa; arrazoi pertsonalak direla medio utzi du kargua.

OSOKO BILKURA BEREZIA 2010eko urriaren 29a

ARTIKAKO KONTZEJUAK BERRIBOBEITIKO UDALARI EGINDAKO DIRU EKARPENA ARTIKAKO KIROL HIRIA ERAIKITZEDO.

M^a Teresa Martínezek kargua utzi ondoren zeuden 9 zinegotziek parte hartutako osoko bilkuran,

Udalbatzak aho batez onetsi zuen Artikako Kontzejuak hartutako erabakia. Erabakiaren arabera, milioi bat euro laga zaizkio Berriobeitiko Udalari Artikako Kirol Hiriko lanak finantzatzeko. Era berean, zehaztu da diru kopuru hori guztia gehienez bost urteko epe barruan itzuliko dela.

OSOKO BILKURA ARRUNTA

2010eko azaroaren 2a

UPNKO ZINEGOTZI ÓSCAR ÚBEDA RUIZ KARGUAZ JABETU DA.

Zinegotzi guztiek parte hartu zuten osoko bilkuran, Óscar Úbeda bere karguaz jabetu zen, zin eginez. UPNko zinegotzi berria da Udalean.

MEMORIA HISTORIKOAN ARI DEN ORDEZKARIAREN IDAZKIA UDALERRIKO HILERRIETAN GORPUAK HOBITIK ATERATZEARI BURUZ.

Udalak aho batez onetsi zuen Memoria Historikoaren Legearekin bat aritzea eta oztoporik ez jartzea ez bazterrek sasiz garbitzeko lanetan, ezta Ezkabako Gotorlekuko presoan gorpuak hobitik ateratzeko lanetan ere, presoak udalerriko hainbat hilerrietan ehortzita baitaude. Era berean, Udalak bide horretatik jokatzera premiatu zituen Kontzeju guztiak.

2010EKO DIRU LAGUNTZA KULTUR TALDEEI.

Udalbatzak aho batez onetsita, kultur taldeei eman eginen zaie bakoitzak eskatu duen dirutzaren erdia.

NABAIREN MOZIOA MEMORIAREN AUTOBUSAREN ERREKURTSOARI BURUZ.

NaBaik mozio bat aurkeztu zuen "Memoriaren Autobusa" taldeak Alfonso XII.a Gotorlekuan egindako lanen aurka tartekatutako errekurtsoari buruz. Hainbat gauza eskatu ziren: alkate José María Irisarrik "Memoriaren Autobusa" taldearekin izandako jarrera deitoratzea; Defentsa ministerioari zehapen-espedientea irekitzea lizentziarik gabeko lanak egin izanagatik; Defentsa Ministerioa Aitzoainen egiten ari den lanetarako lizentziarik eskatu ote den egiaztatzea, lizentzia derrigorrezkoa baita; eta lizentziarik eskatu ez badu, dagokion espedientea abiaraztea; azkenik, erabakia "Memoriaren Autobusa" taldeari eta Defentsa Ministerioari helaraztea. Bozketan egunik, mozioa atzera bota zen, 3 boto izan baitziren alde (NaBai eta CP-HK); 4, kontra (AAB eta CIB-José Manuel Larumbe-), eta 4 abstentzio (UPN, CIB -Aránzazu Algárate- eta AVAB).

KREDITU KONTU BAT EDO BI BOST MILIOI EUROTAN KONTRATATZEA ARTIKAKO KIROL HIRIARENTZAKO.

Osoko bilkurak baldintzen plegua onetsi du, 5 milioi euroko kreditu bat edo bi hitzartzeko, Artikako Kirol Hiriko lanak finantzatzeko aldera. 8 boto izan ziren alde (AAB, UPN, CIB eta CP-HK); 2, kontra (NaBai), eta abstentzio 1 (AVAB).



Artikako Kirol Hiriko lanak, abia onean aurrera

AURREIKUSPENEN ARABERA, LANAK IRAILEAN BUKATUKO DIRA; DENA DEN, LITEKEENA DA LEHENAGO BUKATZEA

Ltxura hartzen hasi da Artikako Kirol Hiria. IC Construcción eta Acciona Infraestructuras enpresek aldi baterako osatu duten batasunak egin du jadanik eraikinen egitura guztia (kanpoko askaldegirako eraikina eta eraikin nagusia), baita kanpoaldeko igerilekuak ere. Orain, eraikin nagusiko estalkia jartzen ari dira, eta hemendik gutxira bukatuko dute. Era berean, egunotan, fatxadetako eta barne-trenkadetako panelak paratzen ari dira. Aldi berean, instalazioetako tu-

tuak jartzen ari dira, elektrizitate, iturgintza eta beste batzuk, eta laster, zeramika paratzeari eta zolak estaltzeari helduko diote.

Aurreikuspenen arabera, lanak irailean bukatuko dira; dena den, lanak nola doazen ikusita, litekeena da lehenago ere bukatzea.

Bestaldetik, Udalak hartutako erabakiaren arabera, 5 milioi euroko kreditu kontu bat edo bi kontratatuko dira, Artikako Kirol Hiriko lanak finantzatzeko.



>KALE-BILKURA ETA MARTXA

Berriobeiti, genero-indarkeriaren kontra

Berriobeitin hainbat ekitaldi egin ziren joan den azaroaren 25ean, genero-indarkeriaren aurkako egunean.

Horrela, eguerdiko 12etan, Udalak kale-bilkura isila egin zuen, emakumeen kontrako indarkeria mota oro errefusatzeko duela agerian jartzeko. Arratsaldean, berriz, Berriozarko eta Antsoango Udalekin batera, martxa bat antolatu zuen, gizartean genero-indarkeriari kontra egin behar zaiola nabarmentzeko. Manifestazioa Berriozartik abiatu eta Iruñeko Gazteluko Plazarantz joan zen. Han, elkarretaratze bateratua egin zen arratsaldeko 8etan. Manifestariak bengalak, eskumuturrekoak eta txapak zeramatzen, mezu honekin: "Udalak genero-indarkeriaren aurka".

>ARAUDIA

Lurzati libre pribatuak arautzeko ordenantza

Udalak ordenantza bat landu du bizitoki-erabilerari lotuta dauden lurzati libre pribatuak arautzeko, eta indarrak gabe uzten ditu auzokideek gehiengo har ditzaketan erabakiak. Araudiari hasiera bateko onspena eman zaio. Ordenantzak ezarriko ditu etxebizitza baten jabeek zer irizpide bete beharko dituzten eraikuntza eta altzari elementu berriak eraikitzerakoan; esaterako, gorapeak, etxolak, gorape txikiak eta etxe-sarreretako terrazak ixtea, igerilekuak eta urmaelak, pergolak eta animalientzako etxolak, besteak beste. Elementu haietarik edozein paratzeko, interesatuek Udalean lizentzia eskatu beharko dute.

>UDAL GOBERNUA

Juncal galar alkateordeak dimisioa eman du

Juncal Galar Udaleko alkateordea eta AAB taldeko zinegotzia zen. Joan den azaroaren 30ean, karguari uko egin zion, arrazoi pertsonalak direla medio. Zerrendako laugarren hautagaiak hartuko du haren lekua; Artikako Juan José Alonsok, alegia. José María Irisarri alkateak laster jakinaraziko du alkateorde berriaren izena.

>UDAL LAGAPENA

Udalak etxabe bat utzi dio Hezkuntza Departamentuari

Udalak erabakita, Artikako etxabe bat utziko zaio Hezkuntza Departamentuari, Iruñeko Donapea Ikastetxe Integratu Politeknikoak lanbide gaikuntzarako hastapen programa hau eman dezan: "Ibilgailuak konpontzeko laguntzailea". Bi urterako utzi zaio erabilpena, eta urtetik urtera luzagarria izanen da, udalak etxabea behar ez badu. Hezkuntza Departamentuaren bizkar joanen dira etxabea egokitzeko lanak, behar diren baliabideak jartzea eta, horrekin batera, argi, ur eta garbiketa gastuak.

AITZOAIN

Santa Ageda jaiak

Eguberrien ondotik, Aitzoaingo auzokideak izanen dira lehenbizikoak urte berriko jai-egutegia irekitzen, urtero bezala Santa Ageda jaiak ospatzeko; ohi denez, otsailaren lehen asteburuan izanen dira. Egitaraua otsailaren 4an hasiko da, ostiral gauez, eta igandera arte iraunen du. Datozen asteotan, xehetasun guztiak jakinen ditugu, baina ekitaldi guztien artean, aurten ere urteroko herri bazkaria egingen da, bai eta musika-ekitaldiak ere.

>OTEITZA

Eguberrietako haur tailerra

Oteitzako Kontzeju Etxean Eguberrietako haur tailer bat egonen da hilaren 18an. Izan ere, Stan2 taldeak hainbat ekitaldi prestatu ditu, bertara joaten diren haur guztien gozamenarako eta primeran pasa dezaten. Hitzordua 17:00etatik 19:00etara izanen da eta, saioari bukaera ezin hobe emateko, otamen bat zerbitzatuko da bertaratutako guztientzako.

>AÑEZKAR, BERRIOGOTTI ETA OTEITZA

Gotorlekuko bi presoren gorpuzkinak agertu dira

Azaroaz geroztik, Aranzadi Zientzia Elkarteko talde bat Ezkabako Gotorlekuko presoen gorpuzkinak lurpetik ateratzeko lanetan ari da Añezkarko, Berriobeitiko eta Oteitzako hilerrietan. Ikertzaileek jakin badakite hiru hilerrietan 41 preso ehortzita daudela.

Lanak egiten ari dira, errepresio frankistako biktimen senitartekoen talde batek sustaturik, eta preso baten gorpuzkinak, zehazki, Añezkarko hilerrian aurkitu dituzte. Orain, hezurak EHUko Medikuntza Fakultatean aztertzen ari dira. Berriogoitiko kanposantuan beste preso baten gorpuzkinak agertu dira, eta Oteitzako hilerrian ere lanean dihardute.

Senitartekoen lanak egiteko baimena lortu dute eta dena urtea bukatu baino lehen bukatzea espero dute.

BERRIOBEITI ETA BERRIOGOITI

Castañé jaia eguraldi txarrari nagusitu zitzaion

Eguraldi txarrak ez zituen haurrak inola ere kikildu eta, aurtengoan ere, ohi denez, azaroaren 1ean, Berribeitiko eta Berriogoitiko haur asko kalez kale ibili ziren giro onean, gaztainen eta goxokien bila, eskean. Horrela, 17:00etatik aurrera, poltsak eskuan, neskato-mutikoak karrikaz karrika ibili ziren, eskean eta kantuan, denetariko gozoen truke. Zuhurrenek bizikleta-kaskoak eta guzti eramaten zituzten, zer gerta ere, goxokiak balkoi eta leihoetatik indarrez erori zitezkeelakoan. Behin "puskak" bildutakoan, bertaratutako guztiei otamen ederra zerbitzatu zitzaion elkartean: txistorra eta gaztainak, hain zuzen.



EGUBERRIETAKO EGITARAUA



CÍCLICUS

ANTZERKIA

JENDE GUZTIARENTZAKO ANTZERKIA CÍCLICUS TALDEAREN ESKUTIK

Eguberrietako lehiaketako sariak banatzea

Eguna: abenduak 17

Ordua: 19:00etan

Sarrera doan

Antolatzaileak: Berriobeitiko Udala eta Artikako Kontzejua Musika

MUSIKA

ABESBATZA KONTZERTUA

Elkhas abesbatzaren kontzertua

Eguna: abenduak 19

Ordua: 13:00etan

Tokia: Berriobeitiko eliza

12:00etako mezan Ametza

abesbatza arituko da

BERRIOZARKO MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUAK

Abenduaren 20an: 18:30ean

Abenduaren 21ean: 19:30ean

Abenduaren 22an: 19:30ean

Tokia: Berriozarko Musika Eskolako ekitaldi aretoa

CHOPIN URTEARI AZKEN AGURRA EMATEKO KONTZERTUA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoko Laukotearen eta Eloy Orzaiz eta

Jan Maarten Van der Mark piano-joleen kontzertua

Eguna: Abenduak 23

Ordua: 20:00etan

Tokia: Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxea

Sarrera: leihatilan (6 euro), aldez aurreko salmentan (5 euro)



JAN MAARTEN VAN DER MARK

JENDE GUZTIARENTZAKO ZINEMA

"FANTÁSTICO SR. FOX"

Eguna: abenduak 28

Tokia: Añezkarko Kontzeju Etxea Sarrera doan

OLENTZERO, MARI DOMINGI ETA ERREGEAK

ARTIKA

MARI DOMINGI ARTIKA BERRIN

Eguna: abenduak 18

Ordua: 17:30ean

Antolatzailea: Hauspo Elkartea, Artikako Kontzejuarekin elkarlanean

Mari Domingi, Olentzeroren neska-laguna, menditik jaitsiko da Artika Berriko haurrek Olentzeroren idatzi dituzten gutunak jasotzeko. Gaztain-jatea eta txokolata izanen dira

AÑEZKAR

MARI DOMINGI AÑEZKARREN

Eguna: abenduak 18

Ordua: 18:00etan

Antolatzaileak: Ezkidi elkarte eta Añezkarko Kontzejua

Mari Domingi, Olentzeroren neska-laguna, menditik jaitsiko da Añezkarko haurrek Olentzeroren idatzi dituzten gutunak jasotzeko. 19:30ean, Zindiku taldearen herri kontzertua elizan

LARRAGETA

OLENTZERO LARRAGETAN

Eguna: abenduak 19

Ordua: 19:00etan

Antolatzailea: Larragetako auzokideak

Olentzero kalez kale ibiliko da; bukaeran, Kontzeju Etxean, txokolata, gaztainak eta ardo beroa banatuko dira

BERRIOGOITI

OLENTZERO BERRIOGOITIN

Eguna: abenduak 23

Ordua: 18:30ean

Antolatzailea: Apezetxea elkarte, Berriogoitiko Kontzejuarekin elkarlanean

Olentzero karrizak karriz ibiliko da eta, bukaeran, goxokiak banatu eta txistor-jatea izanen da; dena, Kontzeju Etxean



MARI DOMINGI

ARTIKA

OPARIAK BILTZEA

Eguna: abenduak 23

Ordua: 18:00etatik 19:00etara

Tokia: Kontzeju Etxea

OLENTZERO

Eguna: abenduak 24

Ordua: 18:00etan

Antolatzaileak: Hauspo Elkartea eta Artikako Kontzejua

Olentzero Ezkabako oihanetatik behera iritsiko da Artikara.

Herrian barna ibili ondoren, Kontzeju Etxera joan eta opariak banatuko ditu

ARTIKA

ERREGE OPILA

Eguna: urtarrilak 6

Ordua: 12:30ean

Tokia: Elizako gorapea

Antolatzailea: Artikako Kontzejua Kontzejuak errege-opil bana emanen die Artikako haurrei, hamabietako mezatik ateratzera-koan

HAURRENTZAKO EKITALDIAK

HAURRENTZAKO LITERATUR

TAILERRA ARTIKAN

Ipuinak kontatzeko tailerra, haurrentzako eta euskaraz, Yolanda Arrieta idazlearen eskutik

Eguna: abenduak 22

Ordua: 17:30ean

Tokia: Udal liburutegia (Artika) 6 eta 10 urte arteko haurrentzako. Izena udal liburutegian eman behar da, abenduaren 10etik 17ra (izena emandako guztiek sari bana jasoko dute)

PUZGARRIAK ETA JOLASAK

BERRIOBEITIN

Puzgarriak eta jolasak, 1 eta 14 urte arteko haurrentzako, euskaraz eta gaztelaniaz.

Eguna: abenduak 26

Ordua: 11:30-13:30 eta 16:30-19:30

Tokia: Berriobeitiko pilotalekua Sarrera doan

Antolatzaileak: Berriobeitiko Udala eta Berriobeitiko Kontzejua

HAUR ZINEMA ARTIKAN

Euskarazko haur zinema

Lana: "Goazen ilargira"

Eguna: abenduak 30

Ordua: 18:00etan

Tokia: Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxea

Antolatzaileak: Berriobeitiko Udala eta Euskarabidea



ELOY ORZAIZ



BERRIOBEITI

ERREGE MAGOEN KABALKADA

Eguna: urtarrilak 5

Irteera: 18:30ean (ordu bat lehena-go, pilotalekua irekiko da opariak uzteko)

Tokia: Plazaola industrialdea **Ibilbidea:** Hasteko, Berriobeitiko Kontzejuaren ongietorria izanen da eta, gero, kalez kale ibiliko da. Kabalkadaren ondotik, pilotalekuan opariak banatuko dira.

Antolatzailea: San Isidro Kabalkada Elkarte, Berriobeitiko Udalarekin elkarlanean



>**HAUR PROGRAMAZIOA**
Ipuin-kontalariak Artikan

Artikako udal liburutegiak egina du dagoeneko datozen hilabeteetarako ipuin-kontalarien egutegia. Aurrekoetan bezalaxe, gaztelaniazko hiru saio antolatu dira eta beste hainbat euskaraz. Gaztelaniazkoak abenduaren 15ean, urtarrilaren 12an eta otsailaren 9an egingen dira; euskarazkoak, berriz, abenduaren 29an, urtarrilaren 26an eta otsailaren 23an.

Ipuin-kontalari guztiak asteazkenetan arituko dira, 18:00etan hasita.



>**LITERATUR LEHIAKETA**
Kontakizun erotikoak, lehiaketan

Kultura Alorrak Kontakizun erotikoak. Berriobeitiko Udalaren III. Literatur Lehiaketaren deialdia egin du. Kontakizun laburrak dira, gaztelaniaz eta euskaraz. Lehiaketak bi kategoria ditu: orokorra, edozein nazionalitateko edo edozein tokitan bizi diren adin nagusiei zuzendutakoa; eta erroldatuentzakoa, udalerrian bizi diren adin nagusiei zuzendutakoa.

Lanen estiloa eta gaia librea da. Lanek baldintza bakarra bete behar dute: hots, kalitateari begira, literatur erotikotzat jo ahal izatea.

Lehiaketa 1.500 euroko sariaz hornitua dago, modalitate bakoitzean, kategoria orokorrari dagokionean, eta 400 euroko sariaz, erroldatuentzako kategoriaren modalitate bakoitzean.

Egile bakoitzak, gehienez ere, lan bat aurkezteko aukera izanen du, kategoria eta hizkuntza bakoitzean, eta kontakizunek gutxienez 15.000 karaktere izan beharko dituzte, tarteak barne. Lanak Udaletxean aurkeztu beharko dira, bertara joanez, edo bestela, posta arruntaz bidaliz; epea martxoaren 31n bukatuko da, eta epaimahaiak 2011ko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko du erabakia. Inork lehiaketaren oinarri buruzko argibideak lortu nahi izatera, jo dezala Maria de Maeztu Kultur Etxera.

II. LITERATUR LEHIAKETAKO KONTAKIZUN IRABAZLEEN ARGITALPENA

Bestaldetik, Udalak Plazaola Bidea. Berriobeitiko Udalaren II. Literatur Lehiaketako kontakizun irabazleen 200 ale argitaratuko ditu. Gaztelaniazko modalitate orokorrean Faustino Lara Ibáñezek irabazi zuen, "Manos de acero, caricias de seda" lanarekin. Euskarazko modalitatean, ordea, irabazlea Ekhiñe Eiguren Azkune izan zen, "Plazaola bidea" lanarekin. Kontakizunak Artikako udal liburutegian egonen dira eskura.

>**ERAKUSKETA**

Brasilgo lurrik gabeen mugimenduari buruzko erakusketa

Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxeko erakusketa aretoan Brasilgo lurrik gabeen mugimenduari buruzko argazki erakusketa bat egonen da ikusgai urtarrilaren 10etik 31ra. Irudiak Sebastiao Salgadorenak dira.

Kultura Alorrak, Aldea-Alternatiba GKErekin elkarlanean antolatutako, astelehenetik ostiralera bitarte egonen da zabalik, 16:00etatik 21:00etara, eta larunbat eta jaiegunean, berriz, Kultur Etxean antolatutako ikuskizunen orduean.

>**EGUBERRIAK**

Jaiotza ikusgai

Urtero bezalaxe, egunotan Jaiotzak ikusgai egonen dira Berriobeitiko elizetan. Ikusgarrietako bat Berriobeitiko elizan jarri da eta urtarrilaren 9ra arte egonen da ikusgai, elizkizunak hasi baino ordu erdi lehenago. Elizkizunak 19:00etan egingen dira lanegunetan eta, 12:00etan, jaiegunean. Jaiotza Lourdes Ilundáinek egin du. Neurriak 2,75 X 1,50 metrokoak dira, eta hainbat gai erabili ditu: kortxoa, polispama, lurrezko pinturak eta produktu naturalak (goroldioa, zuhaixkak, etab.).

>**DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA**

Kultur, kirol eta gazteria xedeetarako laguntzen deialdia

Udalak kultur, kirol eta gazteria xedeetarako laguntzen deialdia argitaratuko du urtarriletik aitzinera. Diru-laguntzak zuzentzen zaizkie udalerrian helbideraturik dauden irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteei eta, era berean, udalerrian egoitza duten pertsona fisikoei, baldin eta irabazi asmorik gabeko ekimen bat aurkezten badute talde baten izenean.

30 egun naturaleko epea izanen da diru-laguntzak eskatzeko, deialdia prentsan eta Udaleko eta Kontzejuetako iragar-ki-oholetan argitaratzen denetik aurrera.

Aurkezten diren proiektuak gauzatu beharko dira deialdiaren aurreko urriaren 1etik laguntza ematen den urteko irailaren 30era bitarte. Salbuespenak salbuespen, diru-laguntzak ez du jarduerak bere osoan duen kostearen % 70 gaindituko.

>**DIRU-LAGUNTZAK**

7.400 euro, kultur, gazteria eta kirol xedeetarako

Zindiku folk taldeak, Ametza abesbatzak, Rocópolis mendi eta eskalada klubak, Berriobeiti kirol klubak eta San Isidro Errege Kabalkadak 7.427,95 euroko diru-laguntza jasoko dute, urtean barrena antolatzen duten kultur, gazteria eta kirol arloko egitaraua gauzatzeko.

Xede horietarako bideratzen diren 9.000 eurotatik, Udalak 7.427,95 euro eman ditu; horrek esan nahi du 1.575,02 euro banatu gabe gelditu direla.

Eskatutako diru-laguntzaren % 50 jaso dute elkarte guztiek. Zehazki, Zindiku folk taldeak 2.045,525 euro lortu ditu; Ametza abesbatzak, 2.000 euro; Rocópolis mendi eta eskalada klubak, 1.500 euro; Berriobeiti kirol klubak, 1.459,5 euro; eta, San Isidro Errege Kabalkadak, 422,925 euro.



► Hiritarren arreta

► MUSIKA ESKOLA Eguberriko Kontzertuak

Ohi denez, Berriozarko "Francisco Casanova" Musika Eskolak Eguberriko hiru kontzertu antolatu ditu egunotarako, hirurak ere eskolako bertako ekitaldi aretoan. Lehendabizikoa abenduaren 20an egingen da, astelehena, 18:30ean, Lehen Zikloko Musika Tailerreko ikasleen eskutik (4 eta 7 urte arteko haurrak). Bigarren kontzertuan Hirugarren Zikloko ikasleak arituko dira (12 urtetik gorako haurrak) eta abenduaren 21ean egingen da, 19:00etatik aurrera. Eta, azken kontzertuan ere Hirugarren Zikloko ikasleak arituko dira eta hilaren 22an egingen da, 19:00etan hasita.

► HIRI KANPAMENTUAK Guztira, 43 haurrek parte hartuko dute Eguberriko kanpamentuetan

Aurtengoan, hiri kanpamentuen Eguberriko ekitaldia abenduaren 27an hasiko da eta urtarrilaren 5era arte iraunen du. 43 haurrek eman dute izena guztira, denak 4 eta 12 urte artekoak.

Aurrekoetan bezala, Kamira Kooperatiba Sozietatea da arduraduna eta taldeak adinaren arabera antolatuko ditu: bi talde (gaztelaniaz eta euskaraz) 4 eta 5 urte arteko haurrentzako, eta beste bi (gaztelaniaz eta euskaraz) 6 eta 12 urte artekoentzako. Gaztelaniazko jarduerak Berriobeitiko Erabilera Anitzeko Eraikinean egingen dira, eta euskarazkoak, berriz, Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean.

Bestalde, Udalaren Kultura Alorrak Aste Santuko hiri kanpamentuen datak ezarri ditu. Zehazki, apirilaren 26an, 27an, 28an eta 29an egingen dira, eta aurre-inskripzioa martxoaren 28an eta 29an egin behar da, 012-Infolokal telefonoaren bidez.

► EUSKARAREN ALDEKO LASTERKETA Korrika 2011

Heldu den urtean Korrika 2011 egingen da. Bada, AEKk antolatzen duen lasterketari buruzko argibidea jaso nahi izanez gero edo inork parte hartu nahi badu Udalak Korrikaren inguruan antolatuko dituen ekitaldietan, Euskara Zerbitzura jo dezala, 948 30 31 29 telefonoaren bidez.



► TXANGOAK Ttipi-ttpa Zendea barrena

"Ibilaldiak gure Zendea barrena" programaren barruan, Euskara Zerbitzuak txango-egutegi berria antolatu du 2011ko ikasturterako. Lehenbiziko irteera otsailaren 20an egingen da, Ezkaba mendira joateko. Txangoa goizeko hamarretan abiatuko da Artikako Kultur Etxetik eta interes berezia izanen du, Ezkaba mendian galduta dagoen baseliza baten arrastoen bila arituko baitira.

Aurreikuspenen arabera, bigarren txangoa Zendealdia esaten zaiona izanen da; hau da, Kontzeju guztiak zeharkatzen dituen 16 km-ko ibilbidea, datorren urtean apirilaren 16an egingen dena. Aldizkariaren hurrengo alean ibilbideari eta irteera-orduari buruzko argibidea emanen dizuegu.

► ERDI AROKO OSABIDE HERRIXKA AURKITU DUTE

Bestalde, joan den azaroaren 7an Eltxumendira joan ziren eta Erdi Aroko Osabide herrixkaren aztarnak aurkitu zituzten. Osabide antzinako Antsoingoa Zendea osatzen zuten hamalau herrietako bat izan zen. 30etik gora lagun bildu ziren egun hartako txango berezian, Jesús María Huartek eta José Félix Babacek gidatuta.

>euskara

>IGERIKETA

Euskarazko igeriketa ikastaroak, haur eta helduentzako

Urtarrilean hasita, euskarazko igeriketa ikastaroak emanen dira Berriobeitiko kirol instalazioetan; zehazki, hiru ikastaro izanen dira haurrentzako, eta bat, helduentzako, guztiak ere astelehen eta asteazken arratsaldeetan. Lehenbizikoa 3 eta 4 urteko haurrentzako emanen da, 18:00etatik 18:30era; eta, azkena, 4 eta 6 urte artekoentzako, 18:30etik 19:00etara. Helduentzako ikastaroa, berriz, 19:00etatik 19:45era izanen da. Eskolak urtarrilaren 24an hasi eta martxoaren 30ean bukatuko dira. Izena emateko epea urtarrilaren 10etik 19ra izanen da.

>BILERAK GURASOekin

Euskara eta familiari buruzko gogoetak

Euskara Zerbitzuak antolatuturik, beste bi bilera egingen dira urtarrilean euskara familian nola tratatu jorrazteko. Lehendabizikoa urtarrilaren 24an egingen da Artikako haur eskolan eta, bigarrena, berriz, urtarrilaren 31n, Berriogoitiko haur eskolan. Bi bilerak 16:00etan hasiko dira. Bilerak guraso euskaldunentzako, euskaraz mintzatzen ikasten ari diren aita-amentzako nahiz euskaldunak ez direnentzako izanen dira, eta helburua da euskararen inguruan sor litezkeen zalantza guztiak argitzea. Ohiko galderak hauek izaten dira: normala ote den haurrek bi hizkuntzak nahastea (euskara eta gaztelania, alegia); nola lagundu eskolako lanak egiten, gurasoak euskaldunak ez badira; aski ote den ikastetxean ikasten duten euskara, edo arazorik ez ote duten izanen gaztelaniaz ongi mintzatzeko.

>EUSKARA MERKATARITZARA Bilerak dendekin

Joan den martxoaz geroztik, Udalak "Euskara merkataritzara" eta "Euskara zure esku" programak kudeatzen ditu. Bi egitasmoen xedea da euskara merkataritzan eta elkartearen artean zabaltzea. Bada, urrian eta azaroan, Udalak lan talde bat antolatu zuen programan parte hartzen duten establezimenduekin, programei bultzada bat emateko.

Bileretan, bertaratutakoek hainbat neurri proposatu zituzten, proiektua sendotzeko eta sustatzeko. Gogoratu behar da ekimenean Iruñerriko bederatzi udal partaide direla (Aranguren, Antsoain, Burlata, Berriobeiti, Berriozar, Orkoien, Uhartea, Atarrabia eta Zizur Nagusia). Inork programetan parte hartu nahi badu, jar dadila harremanetan Elhuyar Aholkularitza enpresako teknikariek (Silvia eta Maite), 948 14 60 47 eta 688 61 23 05 telefonoen bidez; bestela, posta elektronikoko honen bitartez: silvia@elhuyar.com.

>Kirolak



>PILOTA

Flores-Gorriti, Berriobeitiko II. Pilota Txapelketako bikote irabazlea

Berriobeitiko II. Pilota Txapelketako finala Artikako pilotalekuan jokatu zen, joan den azaroaren 27an, eta esan dezagun, pilotariek arras ongi jokatu zutela, hasieratik beretik, gainera, eta partidak, ikusleentzako, gozamen ederra izan zirela. Benjaminen eta kimuen partidetan, beheko mailetakoko pilotaririk hoberenak aritu ziren eta, kadetetan, Bakaikoa eta Barriola bikotea Sánchez eta Petite errioxarre nagusitu zitzairen. Errioxarre indarrez jotzen zuten pilota, faboritoak ziren, baina azkenean, nafarrek hamaika tantoren aldea atera zieten.

Seniorren finalean, pilotazaleek partida ederra ikusteko aukera izan zuten. Lehenbiziko zatian, Arbizu-Matute bikoteak alde handi-handia atera bazuen ere (17-12), bigarrean, Flores arras ongi moldatu zen aurrealdean eta, gantxo eta dejada ederren bidez, 22 tantoraino iritsi ziren, gerriko gorriek tantorik ere egin ez zutela.

EMAITZAK

BENJAMINAK: RETEGUI - EUGUI 18 / ZABALETA - MENDIBE 17. **KIMUAK:** BARRIOLA - ARRIBILLAGA 18 / ROLDAN - GASCUE 9. **KADETEAK:** BAKAIKOA - BARRIOLA 22 / SANCHEZ - PETITE 11. **SENIORRAK:** ARBIZU - MATUTE III 17 / FLORES - GORRITI 22

>ESKALADA

Eguberrietan ere, paretan goiti

Haurrentzako proposamen interesgarria egin du Rocópolis Aisia eta Eskalada Zentroak Eguberrietarako, zirrara zer den sentitzeko, abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra arte, 8:30etik 14:30era. Kanpamentuak asteka antolatuko dira, baina eguneko sarrerak ere erosteko aukera izanen da, eta bi talde egingen dira, adinare arabera: 3tik 5era bitartekoak eta 6tik 12ra bitartekoak. Tailerrik erakargarriena eskalada ikastaro trinkoa izanen da, baina aldi berean, bestelako ikastaroak ere eskainiko dira: ingurumen hezkuntza, gorputz eta antzerki adierazpena, eskulanak eta patina-jea, besteak beste.

Proposamena euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen da, 3 eta 12 urte arteko haurrentzako, eta aste osokoek 115 euro balioko dute, eta 25 euro, berriz, egun betekoek.

Ingelesezko kanpamentuei dagokienez, astebetekoek 135 euro balioko dute, eta egun betekoek, 30 euro, eta 7 eta 14 urte arteko haurrentzako izanen dira.

Izena emateko epea abenduaren 14an itxiko da, baina zabalik egonen da tokiak agortu artean.

Argibideak, Rocópolisen bertan, 948 302437 telefonoan edo info@rocopolis.com. helbide elektronikoa.